

# Hitz beste

Haur- eta gazte-liburuen kritika eta erreseinak



## Hartza ehizatzena goaz

MICHAEL ROSEN

Ilustratzailea: HELEN OXENBURY

Itzultzailea: MANU LÓPEZ GASENI

Pamiela-Kalandraka, Iruña, 2013

### Ipuin mirestua

Musika du ipuin honek. Haur abesti batean oinarrituta, Michael Rosen poetak berriro egin zuen 1989. urtean eta egitura errimatuko testu bilakatu zuen. Hizkuntza eta erritmo apartarekin familia baten ibilaldia kontatzen digu, izenburutik beretik geu ere eraman egiten gaitu, paseoa egitera gonbidatzen gaitu. Irakurleok eta familia bidean aurkituko ditugun oztopoak gaindituz joango gara (lokatza, erreka, elur-ekaitza eta abar), hartza kobazuloarekin topo egin arte. Bide berberetik, arineketan itzuliko gara guztiok, aurretik ezagututako zailtasunak berriz zeharkatuz, eta etxean gordeko gara, ohe barruko babesa eta berotasuna dugu, salbatuta gaude... *ez gara gehiago joango hartza ehizatzena...* uff!

Helen Oxenbury ilustratzaile ingelesaren lana bikaina da, mugimendua igartzen da haurren gorputzetan. Ikus-jolasa egiten du marrazkiekin: zailtasunak irudikatzen zuri-beltza aukeratu du; trabak edo oztopoak gainditzen direnean, kolorea. Aurpegiko keinuak ere izugarri adierazgarriak dira. Hasieran, aitarekin batera doazenean, haurrak pozik eta seguru ikusten ditugu; bidean,

3+

arrikuak aurkitzen dituzten neurrian, aurpegiko keinuak bestelakoak direla ohartuko da irakurlea: harridura, beldurra, urduritasuna, lasaitasuna. Ekintza bakoitzak du bere erritmoa, azkarragoa batzuetan, motelagoa besteetan. Akwarela teknikako marrazkien garrantzia funtsezkoa da album ilustratu eder honetan: orri osoa behar du familiak basoa edo ibai zeharkatzerakoan, irudi luzekagoak, txikiagoak eta azkarragoak presazko itzulerako bidaian...


Liburua hasi baino lehen, hondartza bakartia ikusten dugu, haitzuloaren hasiera. Ipuina amaitu, eta hartza kobazuloa abiatzen da, triste samar; agian, hartza ez da hain zakarra eta beldurgarria, ziur aski familiarekin jolastea besterik ez du nahi... Azken finean, hartza ez da etsaia, adiskidetasuna bilatzen dabilen animalia baizik.

Kontakizuna baino poema ilustratua dugu liburu hau. Jakin-mina pizten du eta tentsioa mantentzen du amaiera arte.

Egitura sinplea, errepikazko esaldi eta onomatopeiekin osatua. Haur txiki-txikiok lokatzak, urak, belarrak, haizeak egiten dituen soinuak errepikatuko dituzte. Jolasteko ezinbesteko liburu.

Interneten bilatzen ibiliz gero, abestia entzuteko aukera izango dugu, idazleak berak antzeztutako saio bikaina ere agertzen da. Ipuineko gaztelaniazko bertsoa Ekaré Venezuelako argitaletxeak kaleratu zuen. Hegoamerikan liburu honek oihartzun zabala izan du, eta abestia zenbait eskoletan haurren psikomotrizitatea lantzeko eredu bezala erabiltzen da. Proposatuko nioke liburu itzuli duen euskal argitaletxeari abestia euskaraz atontzeko, horrela, haur zein bitartekariak aukera izango baikenuke musika eta letra barneratzeko, eta liburu bera ere gure eremuan arrakastatsua izango litzateke. Ea ba, gonbitea eginda dago, norbait abestera eta grabatzera animatuko balitz...

Asun Agiriano



## Kili Txikia

MARIO RAMOS

Ilustratzailea: MARIO RAMOS

Itzultzailea: AZTIRI ITZULPEN ZERBITZUAK

Tartalo, Donostia, 2012

### Diktaduraren kontra

«Leo txikia zen, oso txikia, baina promes handiak zituen eginak. Errege izendatu zuten egunean, festa izugarria egin zuten, eta animalia guztiak gonbidatu zituzten.» Hitz hauekin, eta lehoi goxo eta sinpatiko baten irudi handiarekin hasten da Mario Ramos, 2012ko hondarretan zendu zen sortzailearen lan hau. Leo errege izendatu eta apur apurka gero eta indar handiago erabiltzen hasiko da herritarren kontra, baita diktadura ezarri ere. «Zenbat eta gaiztoago, orduan eta handiago sentitzen zen, izugarri handi. Tronuaren gainetik zutik, eguneko umorearen arabera aldatzen zituen legeak. Animaliak beldurtzen hasi ziren.» Eta horrela, umore txarreko horietako egun batean, txoriei hegan egitea debekatu zien, jai bezain pronto hegoak apurtu behar zizkieten.

Kili txikia txita txiki bat zen, amak maitasun osoz eta hegoak apurtu gabe hazia. Eta Kili txikiak egun batean Leo boteretsuari koroa kendu zion, errege


kargua, eta koroa txerriari jarri buruan. Honek, orduan, urtean behin bakarrik garbitzeko agindua eman zuen eta Kili txikiak koroa kendu eta astoari jarri zion; honek, orduan irakurtzea, idaztea eta pentsatzea debekatu zuen eta Kili txikiak koroa kendu zion eta . . .

Mario Ramosek diktaduraren eta abusuaren kontrako istorio bizi eta guztiz gomendagarria eskaintzen digu alegi honen bidez. Modu sinplean, haurrek ere ulertzeko moduan, eta ateraldi burutsuak erabiliz (animalia ezberdinen bidez bakoitzak dituen burutazioekin jolastuz) umore kutsua ere izan dezake berez oso gai serioa planteatzen duen liburu honek.

Egilea ezaguna da euskal irakurleentzat eta agian nabarmentzekoa da liburu honetan ez duela hainbeste erabili kolorea, ez duela jolastu paisaiekin, inguruko kontuekin. Horren ordean animaliak eta koroa –horia, urrezkoa, nabarmena– ikustarazten dizkigu orrietan. Hots, mezuari indar handiago emanez irudi lauagoak, sinpleagoak, eskaintzen ditu. Testua bezala irudia ere aldatzen delarik baina, era berean, aurrekoaren eboluzioa izanik.

Askatasunaren aldeko aldarria baino gehiago indarkeria eta botere gehiegikerien kontrako aldarria dugu liburua. Kili txikia txita bat besterik ez izan arren, bera dugu herrialdea askatuko duena, Leoren diktadorearekin amaitzeaz gain beste diktadura berriei bidea ixten diena hasiera hasieratik. Eta hau guzti hau haurrek ulertzeko eta haurrek konpartitzeko moduan idatzi eta ilustratua. Eta horixe dugu liburu honen balio handienetarikoa bat, kontu oso serioez, gogoeta eta zeresan handia ematen duten kontuez, oso era sinplean aritzea; diktadura eta askatasuna haurrek ere ulertzeko moduan, eta era atsegin batean, kontatzea.

Xabier Etxaniz Erle



### Matiasen ametsa

LEO LIONNI

Itzultzailea: MANU LOPEZ GASENI

Pamiela-Kalandraka, Iruñea, 2012

#### Hezkuntza artistikoa

Leo Lionni Amsterdam-en jaio zen 1910ean. Ezkondu, eta urte batzuetan Milanen bizi ondoren, Estatu Batuetan sortu zuen obra nagusia. Mundu osoko adituek txalotutako 40 liburutik gora idatzi zituen, eta 1999. urtean Italian zendu zen.

Album ilustratu modernoaren «guraso»tzat hartu izan da Lionni. Beraren ipuinak ditugu *Igeritz* arrainarena –1964an Caldecott Medal saria lortu zuena–, *Frederick* sagutxoaren alegia modernoan, eta *Munduko etxerik handiena*. Liburu gehienetan nabarmena da alde artistikoak edo grafismoak duen garrantzia. Ipuina zabaldu orduko, collage eta pintura batus, egileak sortu dituen sagutxo bitxi eta irudi koloretsuek arreta eskatuko digute.

*Matiasen ametsa* kontakizunean, sagu protagonistak erantzuten dio handi egiten denean zer izan nahi duen galderari. Lionni berak ere, txiki-txikitatik, garbi jakin izan zuen margolaria izan nahi zuela, familian margolaritza-zale handiak zeudelako. Egun, galeria askotan ikus daitezke haren obrak, eta berak dio: «Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenduak adierazten ditu beti». Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina


jaso zuen 1984an. Lionnik haurari transmititu nahiko lizkioke indarra eta kemena sen artistikoa garatzeko, zoragarria dela amets bati kasu egitea eta hunkitu zaituen lehenengo esperientziari jarraitzea, bizitzan harridurarik ez galtzeko, eta mundua ikusteko. Alegia, Matiasek berak ipuinean dioen moduan, adurra dariola, margolan baten aurrean: *Mundu osoa dago hemen*.

Sagutxo protagonisten marrazkiek collage bat osatzen dute, adibidez, zimurtutako egunkariak agertzen dira ganbarako Matiasen txokoa. Irakaslearekin sagu ikasleak museoa bisitatzera doazenean ikusten dituzten margolanek keinuak egiten dizkiete zenbait pintura-estilo eta artista ezaguni. Ikusiko dituzten koadroetan margolaritza-estiloak antzemango ditugu: klasikoa, abstraktua, Moneten inpresionismoa, Picassoren kubismoa, Miró. . . Begirada azkar batean, irudi sinpleak dirudite, baina haurra berehala jabetzen da ipuinean *kolore orban jostariak* duten pisuaz.

Matias saguak, ganbara zikin eta triste batean bizi arren, bizitzan zer bide egingo duen jakingo du margoen magiari esker. Arteak eguneroko errealitate tristea aldatzeko ahalmena duela ezagutuko du. Ipuinak ez du, baina, irakaspen moralik ematen; bizitzaren alegia besterik ez da eta, haurraren begiradatik, ametsak indartsuak izan daitezkeela eta lortzeko saiatu beharra dagoela erakusten du. Zentzu honetan, estimulagarria eta pizgarria da, eta, horregatik, liburu gomendagarria.

Album ilustratu zoragarri honekin berdintsu disfrutatuko dute haurrek zein helduek. Sentsibilitate berezia du istorioak, eta hitzen kutsu poetikoak edozein irakurleren arima konkistatuko du. Leo Lionni idazle eta ilustratzailearen ezinbestekotzat hartzen den beste liburua, 1959an kaleratua, laster izango dugu euskaraz, *Urdin Txiki eta Urdin Hori* izenburukoa. Hurrengo batean egingo diogu merezi duen ongi etorria haur- literaturako klasiko honi.

Asun Agiriano



**Elmer**

DAVID MCKEE

Itzultzailea: AIORA JAKA

Alberdania, Erein, Igela, Donostia, 2012


**Ezberdina eta alai**

«Klis-Klasikoak» bilduman haur-literaturako oinarritzko liburutegia osatu nahi dute Galtzagorri Elkartekoek, eta oinarritzko liburutegi hori, edo haur-literaturako kanon bat edo «klasikoak» batu nahi dituen bilduma horretako azken ekarpena *Elmer* obra dugu. 1989an argitaratu zenetik Elmer elefantea hainbat herraldetan ibili da, lagun ugari egin ditu, liburu izatetik jostailu, puzzle, pampina izatera ere pasatu da; baina, batez ere, egungo haur-literaturako klasikoak dugu *Elmer*.

Azalean bertan ikus daiteke nolakoa den Elmer, koadro koloredun elefantea; hots, surrealista, ezberdina, bitxia, aparta... eta horrelakoa da, hain zuzen, Elmer. McKee elefanteen izaera eta kolore grisaren aurrean bestelakoa aurkezten digu, eta irudietan bertan tonua ere horrelakoa da; lehen irudian elefante taldea ageri da: «Baziren elefante gazteak, elefante zaharrak, elefante handiak eta txikiak, gizenak eta argalak. Desberdinak izan arren, oso zorionsuak ziren, kolore berekoak ia denak». Eta «ia» hori azaltzeko, hurrengo orrian paisaia berdea eta elefanteen gris eta urdinxka koloreen ordez Elmer agertuko zaigu, koloretako elefantea, zuhaitzei, hostoei, hegaztiei, bere inguruan dauden guztiei kolore-bizitasun hori emanez. Baina Elmerrek alaitasuna banatzen du dagoen lekuan, bera dagoelarik taldea pozik

da, Asun Agirianok liburuaren hitzaurrean dioen bezala «Elmer elefanteak izaera jostalaria du. Irriak sortzen ditu inguruan [...] bizipoza aldean daraman alaitasuna zabalitzen du inguruan. Elmerrek ez ditu desberdintasunak ulertuko; bai, ordea, lagunak eta bera estu-estu lotzen dituen barrearen hari fina». Hari fin hori liburuan zehar nabaritu dugu, presente egongo da, eta liburu honetan hasitako bidea Elmer elefantearen beste liburu ugari ere badago, gu, irria ezpainetan Aiora Jakarena bezalako beste itzulpen batzuen zain geratzen garelarik.

Xabier Etxaniz Erle



**Gaua balkoian**

LEIRE BILBAO

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Mezulari, Bilbao, 2012

**Gaua amonarenean**

Iratiren amona aspalditik ari zazio galdezka edo eskean bere etxera joateko lotara. «Gaur arrautza frijituak ditut afaltzeko, patata frijitu piiiiiiloo batekin» proposamenaren ondoren, Iratik amonaren gonbidapena onartzen du, eta iluntzean platera garbi-garbi utzi «harrikoan garbitu beharrik gabe».

Leire Bilbaoren eta Eider Eibarren artean kontaturiko istorio hau Iratiren gau magiko samar horren kontakizuna dugu; amona afaldu, bezain pronto, lo geratzen da eta Iratik, logale ez denez, hainbat kontu asmatzen ditu loak hartzeko. Izarekin burua estali argiak trabarik ez egiteko; ardiak zenbatu, izarrak... azken hauek balkoian; Irati, asperturik, balkoira irten baita Xixtrinekin, amonaren katuarekin alegia, eta balkoian, kaiola batean dagoen kardantxiloaren ondoan, izarrei begira dago. Eta horrela, abiapuntu simple horretatik abiatuta, irakurleak suma dezake hiru lagun horien artean saltsa izango dela, katua eta kardantxiloa ez baitira elkarrekin ongi molda daitezkeen animaliak. Gainera, egoera korapilatuzko, balkoiko atea itxi da, haizeak itxi du, eta barrutik bakarrik irekitzen denez, Irati, kardantxiloa kaiolan bezala, harrapatu dago.

Kontakizunean zehar Iratiren gogoetak eta ekintzak tartekatzen dira, modu naturalean. Beldur eta ikararik gabe egoerari aurre egiten dion neskatiaren narrazioa dugu, eta horren ondoan,

edo horrekin batera, irudien bidez transmititzen zaigun sentazioa ere lasaia dugu, larritasunik gabeko egoera batena; testua eta irudia tonu berean, biak elkarren osagarri.

Istorio xume eta atsegina dugu *Gaua balkoian* hau; irakurtzeko eta kontatzeko aproposa, ikusteko egokia; haurrei kontatu ondoren, Iratik bezala beraiek ere irudimenari atea irekitzeko, jolasteko, gozatzeko.

Xabier Etxaniz Erle



**Marikanta eta inurriak**  
**MARIASUN LANDA**  
 Ilustratzailea: JOKIN MITXELENA  
 Erein, Donostia, 2012

### Lan egin eta dibertitu

Urte batzuetako isilunearen ostean Mariasun Landak bi lan argitaratu ditu haur eta gazteentzat 2012ko hondarrean: *Maitagarria eta desioa* (Elkar) errealismo fantastiko korrontean koka daitekeen nobela eta *Marikanta eta inurriak* ipuina. Azken ipuin honetan, izenburutik bertatik nabaritzen den bezala, «Txixarra eta inurriak» alegi ezaguna dugu hipotestu, baina oraingoan idazleak alegiaren bestelako interpretazio eta bestelako kontakizuna eskaintzen dizkigu.

Txixarra, denok dakigun bezala, ez da inurria bezain langilea eta gero komeriak izaten ditu negua igarotzeko. Horixe dugu alegiaren ikaskizuna, geroa prestatzeko lan egin behar dela. . . baina Marikanta txixarrak lan egin baino nahiago du kantatu eta inurriei proposamen zehatza egiten die negua igaro ahal izateko inurritegi barruan, bertako inurri kantutan erakustea Inurrientzako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan parte har dezaten. Eta horrela kantutan igaro zuten negua inurriek. «Marikantak lan asko egin zuen baina are gehiago dibertitu. Animoa eta adorea ematen zion inurri taldeari inongo etsipen apurrik azaldu gabe. Eutsi goiari! Behin eta berriz. Azkenean, espero zitekeena baina pazientzia eta ardura handiagoko zomorrotxo zela erakutsi zuen.»

Baina udaberria zetorrela sentitzean «arrastorik utzi gabe desagertu zen txixarra inurritegitik».

Marikantak «negualdi bereziki atsegina eta erosoan izan zuen. Babeslekua eta janaria izateaz gain, bere autoestimua handitu egin zen abeslari eta talde dinamizatzaile bezala. Gainera, artez bete zuela inurri triste eta aspergarri batzuen bizitza.» Irakurleak, baina, hasieratik suma dezakeen bezala Marikantaren asmoak ez dira guztiz zuzenak izan eta hori, argi eta garbi ikus daiteke Leonor sorgin-orratzarekin duen elkarriketan: «—Ez al dizu lotsarik ematen langile gaixo horiek engainatu izanak? —errieta egin zion Leonor sorgin-orratzak.

—Lotsa? Zer esan nahi du horrek?

Horrelakoxeak dira txixarrak. Berezkoa dute».

Baina engainatuak izanda ere inurriek kanten alaitasunarekin egiten dute lan harrez gero. Izan ere alegien ikaskizunetik ihesi Landak bestelako ikaskizuna eskaintzen digu ipuin labur honetan, artearen balioarena, lagun giroan ondo bizitzearen garrantziarena, ondo pasatuz hobeto bizi garela alegia.

Ipuina simplea da, azkar irakurtzen dena, eta Jokin Mitxelena irudiek ederki islatzen eta edertzen dute narrazioa. Kontakizuna lineala da, hasieran dagoen aurkezpena kenduta, eta nahiko erraz irudika dezakegu inurritegiko bizimodua bai eta hurrengo urteetakoa ere.

Xabier Etxaniz Erle

8 +



### Gure etxea

RUBEN RUIZ

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Erin, Donostia, 2012

#### Tripak mintzo

Erein argitaletxeak iaz album ilustratu interesgarriak eskaini zizkigun, ez bakarrik *Marrazi(Oak* egitasmoarekin lankidetzan kaleratutakoak, baita beste batzuk ere, adibidez, *Mundua berdea ote da dena?*, eta esku artean dugun hau, *Gure etxea*.

Gaurkotasun handiko gaia etxearen kontua, bizi dugun gizarte egoera zail eta korapilatsuan, familia ugari etxe gabe geratzen ari direla ikusten ari baikara. Haurrek ere injustiziaz eta pobreziaz zer esanik badute.

Ipuina irakurtzean, beste aspaldiko bat etorri zait gogora. Laurogeigarren hamarkadan ere, lan-gabeziak inguratuta bizi izan ginen, eta ordukoa da *Los niños del mar*, Jaime Escalaf idatzi eta Carme Solé Vendrellek margotua. Zuzenagoa eta gordinagoa, agian. Haur ijitoen errealitate mingotsa islatzen zuen hark eta irakurle helduagoa eskatzen zuen ezinbestean, baina badute antzekotasunik kontatzeko eran eta gaiaren aukeraketan.

*Gure etxea* ipuin hau berritzailea eta interesgarria egin zait oso, bai egituran bai marrazkietan. Ausarta eta ezohikoa bi egileen aurreko liburuari erreparatuta. Orduan, *Anekdotak* liburu ederra eskaini ziguten, eta oraingoan Ruben Ruiz-ek ikuspuntu poetikoa aukeratzen duen bitartean, Eider Eibar ilustratzaileak lan pertsonalagoa aurkezten digu, ezagutzen genizkion irudietatik aldenduz, perspektibarekin jolastuz eta esperimentaziori tarte zabalagoa emanez. Osagarri moduan paper testura eta kartoi zati zimurtuak erabiltzen ditu, eta marrazkiak ikusteko, orain goitik, gero azpitik, eta hurrengoan zirrikitu batetik saiatu beharko da

irakurlea, ez baita erraza irudiak lehenengo begi kolpean antzematea.

Testu laburra, beti orriaren ezker aldean, eta, beste aldean, marrazkia. Narratzailearen ahotsa haur batena izan daitekeela pentsatu arren, idazleak esanda dakigu, gizon bizardunarena dela poesia darion ahots goxo hori. Kontakizunaren hasieran horrela dio: «Gure etxea itsasora begira dago. Polita da goizero jaikitzean kresala usaintzea». Egoera zorionsu eta idiliko batetik kontatua dela ematen du, eta protagonistak sentazioetatik eta bizi duen egunerokotasunetik ari dela. Interesgarria nola jolasten duten bi egileek irakurlearen inozentziarekin. Zentzu horretan, album tranpatia da, ipuinaren erdialdean egoera bestelakoa da, buelta ematen dio errealitate *ideal* horri: «Gure etxeak kartoizko teilatua du. Dibertigarria da euria egiten duenean itoginek nire etxea kobazulo bihurtzen dutenean». Mailukadak dira orduan hitzek eta marrazkiek erakusten dizkiguten egoerak.

Bukaera aldera ohartuko gara zer ari den gertatzen, irakurleari eskatzen zaio aurreko eta atzeko orrialdeei begiratu lausoa eman eta geldo irakurtzea.

Ez da haurrentzat bereziki, ezta di-da batean irakurtzeko album ilustratua ere.

Gutxirekin asko esaten digu *Gure etxeak*. Eman diezaiogun bere bidea egiteko denbora.

Asun Agiriano

10 +



### Ilargia esnatu da

JOXANTONIO ORMAZABAL

Ilustratzailea: IRAIA OKINA

Elkar, Donostia, 2012

#### Joandakoak gogoan

«Bizitzaren eta heriotzaren misterioari poesiaz eta sentimenduz betetako erantzuna eman diote Joxanek eta Iraia ipuin honetan» dio argitaldaria liburu honen kontrazalean, eta hain zuen bizitzaz eta heriotzaz ari den ipuin hunkigarri bezain poetikoa dugu Joxanek utzi zigun hau eta Iraia Okinak irudi sentimentalak, apalak, iradokitzaileen bidez ederki ilustratu duena.

Haur txikiarentzako liburua dirudi, hasiera batean bederen, azal gogorra, irudi asko eta testu gutxi, irudiak koloretan... paratestuek hala iradoki dezakete, baina irakurtzen hasi ahala konturatuko gara sinpletasun horrek gaiaren eta narrazioaren gaitasun bat eskatzen dituela. Narratzailea ama bat dugu, eta dauden galderen artean hunkigarriak ere badirela diosku. «Galdera horiek bihotzeraino iristen dira, eta begiak bustitzen dituzte batzuetan». Unai, sei urteko semeak, gau batean «Ama, nolakoa zen nire amona? Zure ama.» galdera egin zion amari, eta honen begiak busti egin ziren.

Galdera horri erantzun eman nahian narratzaileak, amak, bere amari buruz gogoratzen duena kontatuko digu. Joxepik nola eramaten zuen eskolara, nola auzalduen zion joandakoak ez direla itzultzen, eta baita maitasuna elur bola bat bezalakoa dela ere: «Begira, pertsonen arteko maitasuna elur bola bat bezala da. Hasieran txiki-txiki izaten da, pilota baten tamainakoa. Mendian behera doan eran, handitzen eta handitzen joaten da.»

Joxepi, baina, hainbeste maite zuen mendian geratu zen egun batean betiko. «Aita konturatzerako han joan zen amildegian behera.», eta amaren

galeraren min horren parean amarekiko maitasun bola gero eta handiagoa bilakatu zen.

Gaia, ikusi ahal izan den bezala, hungigarria da; idazkera, poetikoa, irudiak ere leunak, Ormazabalen tonuarekin bat eginda; «Ilargia esnatu da eta zuk lo egin behar duzu» dio amak Unairi; baina *Ilargia esnatu da* honek ez gaitu ohera joaten gonbidatzen, sentimenduen eta oroitzapenen mundura baizik; joandakoengandik hurbil sentitzeraino.

Xabier Etxaniz Erle

10 +

Mariasun Landa



### **Maitagarria eta desioa**

MARIASUN LANDA

Ilustratzailea: MAITE GURRUTXAGA

Elkar, Donostia, 2012

#### **Bizitzak bere magia**

Mariasun Landaren liburuak euren artean desberdinak dira, bakoitzarekin bide berriak sortzen baititu; erronka dira irakurlearentzat, beti dakarkigute-eta zerbait berria.

Ategin dut, idazle honek ez gaituelako sekula inozotzat hartzen, kontakizuna bi aldiz irakurtzeko gonbita egiten digu, begirada pausatzeko eskatu, eta bere nahia da liburuan planteatzen den gatazka ulertzen saia gaitezen.

*Maitagarria eta desioa*-ren hasierako eskaintza bereziak samur kokatzen gaitu testuinguruan, eta aurreratu narrazioaren ildo. Planteamenduan haur eta gazteen imaginarioan jarraitzen duten elementuak erabiltzen ditu –sorginak, nahiak–, eta fantasiako osagarriak errealismoarekin batzen ditu. Kontakizunean sinbolismoaren pisua nabarmena da, irakurle batzuek esanahi sakonak aurkituko dituzten bitartean, «*arriskutsua da desio dugun guztia berehala lortzea*», beste batzuk, magia kontuak direlakoan, plazerez eta irribarretsu murgilduko dira istorioan.

Ahozko narrazioetatik gertu, idazleak maitagarrinen ipuinak eta gaurko gizartearen pasadizoak uztartzen ditu. Sorginen ohitura misteriotsuak

jantokiko lanaren nekearekin, gertaera ezohikoak bizitzaren arazo eta zailtasunekin. Horrela, bada, gazteen kezkatik gertuago kokatzen da istorioa. Esaterako, neska protagonista, bere burua gobernatzeko gogoia izan arren, erabakiak hartzea zein zaila den konturatzen da, «*lanbide bat aukeratu, independizatu eta bere bizitzaren jabe izateko aukera emango dion ogibideari ekin*». Ezbai izeneko neskatilak, denboran zehar, ziurgabetasuna, amodioa eta heriotza zer diren ezagutuko ditu.

Denboraren kontzeptuak espazio berezia hartzen du kontakizun osoan. Maitagarriak egunero bisitatzen badu ere, Ezbaik estualdi larriengan ere ez dio mesederik eskatuko. Soilik desiratzen du hurrengo egunean ere etor dakion, alegia, bizitzaren jarraitu nahi du. Maitagarriak zahartzarora iristeko aukera ematen dio, denborarekin jolasteko. Fantasia-testuinguruan, baina errealitatean kokatua. Bitartean, irakurketak emozioak eragin eta erantzunik gabeko galderak sortarazten dizkigu. Narrazio labur honetan testuak erritmo arina hartzen du, denbora markatzeko esaldia hainbestetan, hamahiru aldiz, errepikatu arren.

Argitaletxeak bildumatik kanpo dagoen liburua aurkezten digu edizio zainduan, azal gogorra eta letra-tipo ezberdinak dituela, batzuetan ondo irakurri ez eta nahasgarria den tipografia erabiltzen bada ere. Irudimena eta fantasiaren estetika bitxiak esploratu du Maite Gurrutxagak marrazkiak egiteko gonbita; lengoia propioaz ausartzen da azalera handiko ilustrazioekin zein txikiagoekin. Urdin kolorea nagusi da, baita izenburuan bertan, hitzak bata bestearengandik berezitu nahian-edo.

Nortasun literario handiko Mariasun Landa idazlearen eskutik inoiz ez zaizkigu gauzak esplizituki kontatuko, sekula ez istorio hutsalak aurkeztatuko. *Maitagarria eta desioa* liburuan, bai istorioan baita marrazkietan ere, ñabardura berriak topatuko ditugu irakurraldi bakoitzean.

10 +



**Rita eta alkimistaren ametsa**

MIKEL VALVERDE

Ilustratzailea: MIKEL VALVERDE

Itzultzailea: RAMON OLASAGASTI Aiestaran

Elkar, Donostia, 2013

**Urrea lortzeko formularen atzetik**

Rita ezaguna da euskal irakurlearentzat. Mikel Valverdek sorturiko neskato bizi eta geldikorren bederatzigarren liburua dugu hau eta aurrekoetan bezala Rita abentura batean murgildurik ageri zaigu. Izenburuak berak markatzen du liburua nondik norakoa, alkimistaren ametsa urrea sortzeko formula izan da eta azaleko irudian ageri den Europa erdialdeko hirian kokatzen da abentura.

«—Egia al da kondaira guztiek Pragari buruz esaten dutena?» galderarekin hasten da Valverderen liburua, eta horrela, ekintzen bidezko edo elkarrizketen bidezko kontakizunaren bidez jakingo dugu Rita Pragari joan dela oporrek osaba Danielekin igarotzera. Osaba, Daniel Bengoa irakaslea, ikerketa proiektu bat dela eta dago Pragan, gazteluan aspaldi bizi zen alkimista baten formula bilatzen ari dira, urrea lortzeko formula hain zuzen: «oso dokumentu arriskutsua [...] berealdiko boterea emango liokeelako jabeari. Inork inoiz amestu duen botererik handiena».

Rita zaleek suposa edo espero dezaketean bezala neskatoa ez da geldi egongo Pragan, osaba eta ikerlariak hiritik kanpo badaude ere, Rita osabaren lagun baten familiarrekin (aiton bat eta bi haur biki

12 +



**Urrezko orrazia**

GAIZKA AROSTEGI

Ilustratzailea: EIDER EIBAR

Elkar, Donostia, 2012

**Lamia salbatu zueneko**

«Baserrira lehenengo aldiz ikustean, zirrara bitxi bat nabaritu zuen Ainhoak, bihotz barrenean. Bai, inolako zalantzarik gabe, kutsu misteriotsua zerion.» Esaldi horrekin abiatzen da Gaizka Arostegiren abenturazko nobela hau, misterio, abentura, mitologia eta gaur egungo errealitatearen konbinatzen dituen lana.


Nobelako protagonista, Ainhua, arbasoen baserrira joan da gurasoekin egun batzuk pasatzera. Egund lasaiak eta familia barneko egoera konpontzeko edo balio behar zutenak; gertakariak, baina, guztia korapilatuko dute. Ainhua abentura ikaragarrian sartuko da, lamiak eta mitologiako bestelako pertsonaiekin batera. Gurasoek, beste aldetik, beren harremanaren amaiera nabaritzen dute, behinolako maitasun garra itzali edo itzaltzen ari dela.

Elementu horien konbinaketarekin, batez ere Ainhoaren nondik norakoekin, osatu du Gaizka Arostegik liburu hau, III. Mikel Zarate literatura saria irabazi zuen lana, hain zuzen; eta aurretik aipatu ditugun gai horiez gain idazleak kontaktuzunean ezarritako bizitasuna gehitu behar dugu; lana 31 atal laburretan banaturik baitago eta horrek, bai eta euskara aldetik zailtasun handirik

ez izateak eta zenbaitetan elkarrizketa ugari ego-  
teak, lagundu egiten dute irakurketa bizia izaten,  
ia-ia abenturen trama bezain bizia.

Ainhoak Ur lamia lagundu nahi du eta horretara-  
rako basoko pertsonaia mitologikoak kontrolatzen  
dituen atso gaiztoaren kontra ere egin beharko  
neskatilak bere adorea eta argitasuna erabiliz.  
Ipotxak, bizargorri, herensuge, sorginak...  
azalduko zaizkigu abentura horretan, batzuen  
laguntza izango du Ainhoak, beste batzuk etsai;  
baina batzuen alde eta besteen kontra ari delarik  
irakurlea liburuko orriak irenstera darama; abentura  
buzitza, liburuaz disfrutatzen.

Xabier Etxaniz Erle



### Amattoren uzta

MAYI ARIZTIA

Ilustratzailea: MAITE GURRUTXAGA

Egokitzailea: PATXI ZUBIZARRETA

Alberdania, Erein, Igela, Donostia, 2012

#### Iragana gerorako

1934an argitaratu zituen Mayi Ariztia sara-  
tarrak herri-ipuina biltzen dituen liburu hau.  
Aitzinsolasean ageri zen bezala, Josepe Amorena  
izeneko «lauetan hogeita bi urteko xahar maite»  
batengandik jaso zituen ipuin gehienak, bede-  
ratzi zehazki, eta «harritzekoa da ze memoria  
izaten duten batera irakurtzen eta izkiriartzen ez  
dakiten horiek: liburuetan deusik ezin ikasi, eta  
beti oroitzen beren aintzinekoengandik aditu  
dituztenez!».

Mayi Ariztiak 15 ipuin batu zituen liburuan eta,  
orain, Patxi Zubizarretak egokiturik, berriro goza  
ditzake irakurleak antzinako istorioak irakurriz,  
gure arbasoen kontuak ezagutzuz. Are gehiago,  
liburu honetan Maite Gurrutxagaren irudi ederrek  
balio erantsia ematen diote berez biziki estimatu  
eta maite dugun lanari.

Liburuko istorioetan oso estilo eta narrazio  
ezberdinak aurki ditzake irakurleak; badira arima  
eta deabruen istorioak (lehenengo ipuinean  
bertan, «Mutil baten istorioa», agertuko zaigu  
Ama Birjina protagonistari laguntzen), herri-  
puinen kutsukoak, Axularren arokoak... batzuk

ezagunak izango zaizkigu, beste batzuk, berriz,  
harrigarriak.

Zubizarretak, liburuari eginiko hitzaurrean,  
honako hau dio: «Egokitze hau sortzailea den  
bezala suntsitzailea ere bada. Hala geratu da orain  
[...] ipuinetako zenbait erreferentzia eta aipamen  
[...] zaharkiturik geratu dira, eta desagertu eta  
horiek beste molde batera ematen ahalegindu  
naiz, berregokitzen edo, kasu bakar batean,  
ezabatu ere egin dut». Hain zuzen, erlijio-pisu hori  
arintzea edo, nabari daiteke «Mutil gaixo baten eta  
neskatxa baten istorioa» ipuinean, jatorrizkoan,  
«Mutil gaixo baten eta Birjina Maria neskatxaren  
istorioa» baitzen.


Edonola ere, aldaketek testua gaurkotu eta  
irakurketa erraztu egin dute, gaurko irakurleari  
hurbiltzeko, eta horrela, antzinako ipuin haiek  
gureganatzeko aukera paregabea eskaini. *Amat-  
toren uzta* honetan, besteak beste, geroago  
Barandiaranek jasotako istorioen antzekoak aurki  
ditzakegu («Arotzaren istorioa» edo «Arttoren  
istorioa»), edo Azkueren «Ondo eginak zer me-  
rezi daben» ipuinarena, oraingoan, baina arabiar  
kutsua duelarik.

Sarritan aipatu izan dugu euskal tradizioaren  
aberastasuna, ahozkotasanak izan duen garrantzia.  
Horren adibide bat dugu tradizioko testu eder  
horiek biltzen dituen liburu hau, bai eta aukera  
ederra lehena eta geroa, tradizioa eta modernita-  
tea, gure arbasoak eta haurrak elkartzeko ere. Eta,  
hau guzti hau, ipuin batean amaieran ageri den  
bezala, «Eta hala ez bada, hala gerta dadila».

Xabier Etxaniz Erle



14 +



**Anubis 3.0. Arimaren pisatzea**  
DANI FANO  
Ikastolen Elkartea, 2012

### Erraietatik

Orain dela bizpahiru urte, Xabiroi aldizkarian atalka argitaratutako istorioa bildu, eta aurten, album formatuan, kaleratu da *Anubis 3.0* komikia. Ez da erraza izaten pausu hori ematea, izan ere, komiki bat egiteko proiektua ez da *di-da* batean gauzatzen, sortze-prozesutik argitarazteraino urteak igaro baitaitezke. Ilusioa eta kemena, gutxienez, ez zaie falta Euskal Herrian komikiaren munduan murgilduta dabiltzanei. . .

*Anubis 3.0-k* gizakiaren alde ikusezina azalera-  
ratzen du, gaurko egunetara ondo baino hobeto egokitzen den istorioa hartzen du ardatz. *Gadu* zientifikoak arima pisatzeko tresna asmatu zuen, eta negozio bihurtu, aberatsen eskura jarri. Horrekin, bere ezagutza eta teknika diruaren truke saldu zituen. Urte batzuk geroago, bakartua eta ozpindua bizi da urrutiko asteroide batean, eta *Ammit* etxeko robot zintzoaren galderak erantzunez, aitortu gabe zituen gezurrak eta erruak kontatzeari ekingo dio. Indar handiko hasiera du komikiak: «ez dut jendea maite, ergel sorta amaigabea,» dio *Gadu* ikerlariak.


Funtsezko bost pertsonaia daude: publizista gezurtia, banku-langilea, esatari politiko ustela, kirol-mediku gezurtia eta giza baliabideen zuzendaria. Guztiak hipokresian goxo bizi eta kontzientzia diruaren zerbitzura jarri duten

pertsonaiak dira. Munduaren egoera ikusita, Fanok kapitalismo basatiko protagonista batzuk aukeratu, eta denak larrutu egiten ditu. Komikia gizartearen kritika zorrotza da, eta, 2035. urtean bizi diren pertsonak izan arren, irakurleari zenbait gai oso ezagun egingo zaizkio: bankuak eta etxe-kaleratzeak, kontsumitzaileak engainatze aldera talentua saldu duen marrazkilaria (egileak ironiaz dio: «. . . talentua alferrik galdu ez zedin, loretxoak margotzen, edo komikiak egiten»), debekatutako substantziak kirolari ezagunei ematen dizkien kirol-medikua, eta abar, eta abar. Errebeldiaz eta mendekuz elikatzen da Dani Fano marrazkilarien esku trebea, eta, emaitza, istorio ausarta eta indartsua da. Mezu argia eta hausnartzeko parada ematen digun komikia da. Irakurlea harrapatu egiten badu ere, patxadaz irakurtzekoa, soseguz ikusi eta gozatzekoa.

Binetak maisutasunez marraztuta daude, marra garbia eta kolore planoak erabiltzen dira. Gidoia ondo garatua dago. Liburuaren azalerako aukeratutako irudia bera ere ikusgarria da. Aipatzekoa, halaber, komiki honen proiektuak bizpahiru urte luze iraun duen denboran, Fanok Asisko Urmenetaren laguntza izan duela; zentzu honetan, elkarlan horrek non izan duen eragina ikusteko, ariketa interesgarria da, adibidez, Asisko Urmenetaren binetaren marrazkia non dagoen aurkitzea.

Ongi etorria izan dadila *Anubis 3.0* komikiaren kontzientzia astindua!

Asun Agiriano



**Motoa**  
JUAN KRUIZ IGERABIDE  
Alberdania, Irun, 2012

### Iparrorrazaren bila


Igor gazte nerabe baten istorioa kontatzen digu hain izenburu adierazgarria duen Igerabideren gazte-literaturako lan honek. Igorren bizitza oso gorabeheratsua dugu, gurasoak banatuak (ama beste maitale batekin joana, hobeto esanda), arreba nagusiak amarena egiten, lagun berriak egin nahian. . . eta nerabezaroa den egoera zalantzakor, aldakor, bizi eta norabide argirik gabeko horretan, Igor mundu berri bat deskubritzen hasiko da Irene ederrak liluratuta.

Zitzu bizian ibili ohi da Igor motoan, eta horrela doaz orriak irakurlearen aurrean; hasieran oso gauza gutxi gertatzen direla dirudi, idazlea irakurlea testuinguruan kokatzen ari baita, Igorren munduan barneratzen; baina gero, Irene agertzean, Igorren bizitzan emaniko aldaketen lekuko izango gara. Bera baino urte batzuk helduago, den neska salbatzen du, eta poliki-poliki neskaren sarean geratzen da harrapaturik; gauetan irten, drogaren mundua ezagutu; Ireneren kuadrillakoekin hasi, nahiz eta gustukoak ez izan. . . eta bitarte horretan, Igorren ondoan, etengabe, aholkuak eta iritziak emanez, bere benetako laguna, Tripazorro.

Gorabeheratsua da gazteen bizimodua, eta are gehiago lgorrena; arrebak, «nana» deitzen dion arrebak horrek, ez du lagutzen; aita ere oso urrun sentitzen du... lagun berriak erakargarriagoak zaizkio, nahiz eta ez konbentzitu. Eta horrek guztiak ezinegonarengatik dagoen lgorren baitan, etsipena, itxaropena edo amorrua bezalako sentimenduak plazaratuz, «Zergatik alde egin zenuen, ama!» kalearen erdian botatzen duenean bezala.

Igerabidek familiaren inguruan, lagun taldeak edo harremanak eta protagonistaren barne borrokan oinarriturik eraiki du nobela hau, gaztaroaren egoera batzuk oso muturrera eramanez, satira- edo karikatura-puntua ere izanik –izenen erabilera ere—. Baina, *Motoa* hau, batez ere gustura irakurtzen den nobela bizi eta entretenigarria dugu.

Xabier Etxaniz Erle



### Tom Sawyerren abenturak

MARK TWAIN

Ilustratzailea: GUILLERMO GONZÁLEZ

Itzultzaileak: IÑAKI MENDIGUREN eta SARA

J. TURTLE

Alberdania, Erein, Igela, 2012

#### Neguko aterpe

*Tom Sawyer-en abenturak* Mark Twain idazlearen gaztaroko oroitzapenetan oinarrituta daude, Mississippi ibaiaren ertzean. Bera dugu haur-literaturan pertsonaia kuttunetarikoa bat: indar handikoa, kuriositatez eta askatasun gosez betea. Garai hartan –eleberria 1876an argitaratu zen– erlijioak zuen eraginetik aldentzen saiatzen da Tom gaztea; bihurrikeria eta gezurra ugari, baina bizirauteko eta dibertitzeko beharrezkoak egingo zaizkion trikimailuak direlako. Hala ere, adiskidetasunean sinetsi, eta bihotz handiko mutila da.

XIX. mendeko eleberri klasikoak eta gaur egungo gazteen ohiturak oso ezberdinak direlako eta pasarte asko xehetasunez beteta daudelako, Iñaki Mendiguren itzultzaileak hitzaurrean gogoratzen digu liburuan keinu asko egiten direla helduentzat, eta testua hobeto ulertzeko eskatzen ditu «bizkarrean urte batzuk eta eskarmentua izatea». Funtsean, haurrak dira protagonista eta heroi papera betetzen dutenak, eta helduak oker jokatzen dutenak eta akatsak egiten dituztenak.

Haurrek sufritu egiten dute, baina min horretatik berehala ateratzen dira: «*Bi minuturen buruan, ahaztuak zituen bere arazo guztiak. Ez bere problemak ez zirelako berarentzat gizon batentzat bereak diren bezain astun eta garratzak, baizik eta interes berri eta ahaltsu batek menderatu eta burutik kendu zizkiolako momentuz, eginkizun berrien zirrarapecan gizonen ezbeharrak ere ahazten diren bezalaxe.*»

Helduek asko dute ikasteko Tom eta Huck-en portaeraz; egia aurkitu nahian, ausardiak jokatzen dute bitzta bera arriskuan jarri. Tom basati zintzoa da, bere barne-bulkadak eraginda hartzen ditu erabakiak. Hasieran liderra zena amaieran heroi bihurtzen da.

Neurabeentzat baino gazteentzako liburua da hau. Irakurketaz gozatzeko urduritasuna uxatu behar dela esango nuke, irakurketa mantsoa eskatzen duela, nerabeek barnean izan ohi duten zurrunbilotik at. Twain idazlearen asmoetako bat hauxe izan zen: «*Atseginez gogoraratzea helduei garai batean nolakoak izan ziren beraiek, eta nola sentitu eta pentsatu eta hitz egiten zuten orduan, eta zer-nolako eginkizun bitxietan murgiltzen ziren batzuetan.*»

Izan ere, eleberri klasikoak bere garaian helduentzat idatzi ziren. Horregatik, helduko zuhurtzia gomendatu behar dizkiegu gazteei, eta ez pentsatu gazte-denboran nahitaez irakurri beharrekoak direnik.

Hori bai, liburua luxuzko edizio ilustratua dator, orain arte euskaraz ezagutzen ez genuen arretaz argitaratua, orain arte ezagutzen ez genuen Guillermo González ilustratzailearen marrazki bikainekin lagundua, eta itzultzaileen xehetasunez betea.

Azken lan honi buruz esan, ziur aski, ez dela erraza izan eleberriak dituen bi hizkuntza erregistro ezberdinak euskaratzea: pertsonaien hizkuntza arrunta, ahozkotasunetik gertuago, eta narratzaileak erabiltzen duen hizkuntza zuzena, literarioagoa, ironikoa zenbaitetan, umore beltz finez zipiritindua. Iñaki Mendigurenek eta Sarah J. Turtle-ek maisutasunez itzuli dute.

**Conjugar el verbo leer.**

**Invitación a la lectura y a la escritura**

SEVE CALLEJA


Desclée de Brouwer, Bilbo, 2012

Seve Calleja idazle eta irakasle beteteranoak betidanik izan du literatura irakasteko bide berriak jorrazteko kezka. Idazle eta aholkulari gisa, argitalpen-proposamen oso interesgarriak egin ditu han-hemengo argitaletxeetan, eta, horrenbestez, bere gustuak erakutsi: abenturetako kontakizunak, narrazio hutsak, ipuin gogoangarriak. Alde horretatik, *La infancia recuperada* idatzi zuen Savater hura gogorarazten digu.

Irakasle gisa, berriz, irakurketa eta idazketa uztartzen saiatu da; jada duela hogeitau urte baino gehiago, *Todo está en los cuentos. Propuestas de lectura y escritura* argitaratu zuen, Víctor Moreno idazle nafarrak lehengo OHO hartarako, eta Sánchez Enciso eta Rincón irakasleek orduko BBBrako egindako proposamen berritzaileen arrastoan.

Ordukoak dira haur- eta gazte-literaturaren irakaskuntzan aldarrikatzeko lehenengo saiok eta, haiekin batera, helduen literaturatik haur eta gazteen interesekoa izan zitekeena zuzenean zein moldaketan bitartez berreskuratzeko ahaleginik serioenak, Xabier Monasteriorekin batera argitaratu zuen *La literatura infantil vasca* 1988ko liburu hura lekuko.

Besteak



Bada, orainoan, *Conjugar el verbo leer* honekin itzuli da Seve Calleja ikasgeletarako materialen plazara. Liburuak bi atal nagusi ditu; bata teorikoa eta bestea praktikoa, lehengo ildoari jarraituz.

Alderdi teorikoan, ahozko tradizioetik gaur egun haur- eta gazte-literaturatzat ezagutzen dugun liburu inprimatueta egindako bide luzearen historia moduko bat egiten da, oso era irakurgarrian eta tankera guztietako adibideak ekarrita, zinemako aipamenak barne, ibilbide

luzeko irakasleak atentzioa erakartzeko bildu ohi dituen baliabide askotarikoak erabiliz. Atal horren amaieran, berriz, abenturetako liburu sorta baten komentarioak datoz, *Altzor uharte-tik Ogi ta ardo Martxelin*-era.

Bigarren atalak «En el taller de prácticas» izena darama, eta literatura-lantegirako proposamen batzuk egiten dira, arloko aditu klasikoek bidetik: Rodari, Moreno, Rincón eta Enciso, Ortega, Cassany, Serafini, Calero Heras... Horretan, alde batetik, *mimesis* esanenez genezakeena azpimarratzen da, hau da, eredu kontsokratu batzuetatik abiatuta era askotako aldaerak egitea, Raymond Queneau-k *Estilo-ariketak* klasikoan egin zuenaren antzera. Bestetik, testu literarioak egituratzeko ariketak ere aurki daitezke; azken batean, praktikatik abiatuak teoria eraikitzea da helburua, izen bereko eskola konstruktibistak proposatzen zuen bezala.

Amaiera gisa, zenbait eranskin paratu ditu Callejak: «Manifiesto por un ambiente de lectura en la escuela», «Valoración de la lectura por los propios lectores», «Un modelo de encuesta sobre hábitos y preferencias lectoras» eta «La lectura a la luz de las TICs».

Hitz gutxitan esanda, liburu hau irakurketaz eta idazketaz dauden joera interesgarrienen konpendioa dugu, esku trebez idatzia.

Manu López Gaseni

